

DIRU ITURRIAK

Diru sarrera nagusiak **aktiboen salmentarekin** lortuko ditugu: Prezio finkoa izango duten pultserak saldutko ditugu eta hauek erabileraren arabera kargatu egin beharko dira, beraz, ordainketa errepikariak egin beharko dituzte bezeroek.

Pultseraren prezioa 39,99 eurokoa izango da eta kargak aparte erosi beharko dira; kontuan hartuta, karga bakoitzak 6 euroko 10 dei izango dituela.

Azkenik, aipagarria da enpresaren sare sozialetan edukiak igoko dugu pultseraren inguruzkoak, publizitatea egiteko helburuarekin. Honek, bisualizazioengatik diru iturri txiki bat emango digu.

Hasierako inbertsioari aurre egiteko gutako bakoitzak bere aurrezkietatik 1.000 euroko kapitala jarriko du. Beraz, 5.000 euroko kapitala izango dugu.

